

HIRITARTASUNA ETA IDENTITATEA

Gazteei, eta oro har hiritarrei, Europari buruz galdetuz gero, alderdi geografiko eta historikoa nagusitzen dira, nahiz eta erantzunak zehaztugabeak eta nahasi samarrak izan ohi diren. La Caixak ikerketa sakona finantzatu du gai honetaz. Emaitzak liburu batean argitaratu dituzte. “Los jóvenes ante el reto europeo” izenekoan irakur daitekeen legez, gazteek ez dute ezagutza handirik Europako herri eta kulturen gainean. Estereotipoak nagusi dira, ez dituzte ezagutzen europar erakunde eta politikabideak, ezta europar hiritar legez dituzten eskubideak ere. Ikus ondorengo helbidea:



http://www.estudios.lacaixa.comunicacions.com/webes/estudis.nsf/wurl/pfeshomecos_esp

Europa, aurreko atalean azaldu bezala, historia luzeko kultura-ondare komunaren jabe legez irudikatu ohi den arren, lan nekeza —agian, ezinezkoa— da europar iragan eta orinaldi konplexuak osorik eta batera adierazteko erarik asmatzea. Autore askoren iritziz, “europar espirituaren” ezaugarri nagusia berorren dibertsitate eta pluraltasun handia da. Hortaz, oso zaila da ikasleentzat, eta hiritar guztientzat, europagintzari lotzeko identitate-kontzientzia erakargarririk sortu eta helaraztea. Are zailagoa, europar kultura-identitatean soilki oinarritu nahi bada.

Irakasle legez, galdera batzuk egin beharrean gaude: Gai gara kontzientzia hori sortzen laguntzeko? Zelan? Zein zutabetan dute oinarri identitateek? Pertsonak eta herriek identitate ezberdinak batera eduki al ditzakete? Erantzuna baiezkoa izango balitz, zelan erlazionatzen dira eta eragiten diote elkarri? Zerk lagun dezake balizko europar identitatea eratzen?

Europa kultur meta da. Kultura horiek heterogeneoak dira, batzuk gutxituak, menpe dauden neurrian, eta besteak hegemonikoak, nagusi baitira. Kultura horien arteko erlazioak harmonikoak eta gatazkatsuak izan daitezke. Hala eta guztiz ere, autore askok uste dute *benetako batasuna* egin daitezkeela. Adibidez, Habermas-ek dio beti erabil daitezkeela bide ezberdinak bestekiko diferentziak onargarri egiteko (C. Domínguez “El papel del patrimonio en la construcción de la identidad europea. Ante un reto educativo” Iber 24. 2002 urria 75. orr.).

Garbi dago, ikerketa askok erakutsi dutenez, identitateak antolatzeke lehenengo maila lokala da, eta horren ostean datoz beste mailak, nazionala eta nazioaz gaindikoa bitarte, planetakoraino.

Beraz, norbanakoaren identitatea kidesun anizkunez edo identitate anizkunez osatuta dago. Europar identitatea, besteak bezala, identitate plural baten osagarri baino ez da.

Europar identitate bat eraikitzeak esan nahi du norbanakoek beste identitate bat ere berenganatu behar dutela. Hori horrela gerta dadin, europar dimentsioak ez du ekarri behar gatazkarik ditugun beste kidesun sentimenduekin eta, noski, erakargarria izan behar du. Herritarron bizimodu egoki eta bidezkoa sustatzeko balio behar du.

Hori guztia dela-eta, europarrok guztiona izango den identitatearen ezaugarri funtsezkoak topatu eta zehaztu behar ditugu, gure bestelako identitate pertsonal zein nazionalak sakrifikatu gabe.

Alabaina, zein oinarri edukiko du identitate partekatu horrek?



Inkesta askoren arabera, ez da erraza gure ikasleek iraganean soilki oinarritutako identitatea bere egitea. Egokiagoa dirudi etorkizunerako taxuzko proiektu batean oinarritzeak. Esan nahi baita proiektu unibertsalista bat beharko litzatekeela zapalketa soziala ezabatzeko eta guztiontzako ongizatea ziurtatzeko, hiritar guztien garapen pertsonala eta soziala gauzatzeko zerbitzuak eskaini eta bidezko kohesio soziala lortzeko.

Gizabanakoaren duintasuna, berdintasuna eta askatasuna izango dira proiektu horren zutabeak. Era berean, funtsezkoa da balio demokratikoak benetan garatzea, hiritarrek erabakimena edukitzea eta beraiek erabakitzea funtsezko gai guztietan.

Eta halakoxea da gazteek pentsatutako Europa: bake giroa, ingurumena zaintzea, kulturak eta jendea errespetatzea. Europako biztanleek gizarte eredu berria nahi dute Europarentzat, gai zentraleri, hots, lan, hezkuntza eta osasunari irtenbide egokiak emateko.

